

# HERNANIK kronika

2004 urtea  
Otsailak 28  
Larunbata  
Alea: 1032  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

PELLO GONZALEZ, 'GOEIO' - PINTOREA

## "Gogorrena koadroa bukatzea da, hasierako idearekin emozionatu egiten zara baina bukatzea lan serioagoa da"

■ Pello Gonzalez 'Goeio'-k, helduentzako pintura klaseak ematen ditu Biterin, duela 13 bat urtetik ■ Katalina de Erazo arte klubean eta Gipuzkoako arte elkartean aritu da ikasten ■ Errapia arte elkarteko kidea ere bada.

PELLO Gonzalez, *Goeio*, da Biterin helduentzako pintura klaseetako irakaslea. Duela 13 bat urte hasi zen lan horretan. Pintatu, askok bezala, txikitatik egiten zuen baina gaztetan ekin zion serioago eta Katalina de Erazo arte klubean eta Gipuzkoako arte elkartean murgildu zen. 14 urterekin hasi zuen fundizioko lana utzi eta pintatzea erabaki zuen. Ordutik irakasle lanean, eta bata eta bestearentzat lanak egiten aritzen da.

Gaur egun, Artetik elkarteko kidea da. Kultur etxeetan klaseak eman ahal izateko sortu zuten Artetik duela 13 bat urte. Hernaniko hainbat artista biltzen dituen Errapia taldeko kidea era bada.

### ■ Zer da Biteriko ikastaro- etan ikasten dena?

Biterin helduentzako pintura klaseak ematen ditut, bata hasierako da eta bestea, pinturan sakontzekoa. Ikastaro hauetan ikasten da marrazten, kolorrekin marrazten, forma naturalak kopiatzen, teknika ezberdinak lantzen dira eta ondoren sakondu egiten dira.

### ■ Zenbat denbora darama- zu pintatzan?

Pintatu txikitaren egiten nuen, baina gero, gertatzen den bezala, utzi egin nuen. 20 urterekin berriro ere ekin nion eta Katalina de Erazo arte klubean eta Gipuzkoako arte elkartean hainbat ikastaro eta tailer egin nituen: oleoan pintazen ikasi, giza modeloak naturalean marrazten ikasi, eta abar. Oso jende interesgarria ezagutu nuen, Jesus Gallego, Robert



Pello Gonzalez, Goieio, Biteriko pintura gelan.

Llimos, Frederic Amat, Juan Joxe Akerreta, oso jende berezia. Orain pintatzen jarraitzen dut, eta ikasten, hori ez baita inoiz ere bukatzen.

### ■ Ze idearen bueltan pintatzen duzu?

Hasieran unibertsitario, izarrak, hortzadarra, eta horrelakoak pintatzen nituen. Saitzen nintzen koloreak erabiltzen. Ondoren pintzeladan espresioa bilatzen hasi nintzen, giza gorputza marrazten hasi nintzen eta handik beste gauza batzuk atenratzen. Letren inguruko lanak ere baditut, letren planoei kolorrea eta expresioa bilatzen saiatu naiz. Bodegoiak eta horre-

"Erakusketa batean esan zidaten nolatzen pintatu nezakeen kolorekin mundua hain grisa izanda. Orduan koloreekin pintatu behar nuela konturatu nintzen"

lakoak ere egiten ditut eta fondoan zerbait marrazten saiatzen naiz puskatzeko.

### ■ Ze erakusketa egin dituzu?

Orain Getariako Arte Galerian daukat erakusketa bat antolatuta beste hainbat pintorerek eta martxoren 15a arte egongo da. Nere ibilbidearen hasieran

erakusketa pila bat egin nituen nire marrazkiekin, baina, 1990ean nere lanari buruz erreflexionatu egin behar nuela konturatu nintzen eta ordutik egin ditut erakusketak baina kolektiboak. Orain nire obra osatzen ari naiz eta nere asmoa da etorkizunean erakusketa individual bat egitea.

### ■ Errapia taldean ere bazabiltza, ezta?

Bai, Hernanin lana egiteko espazioa behar genuen jendea elkartu ginan Errapian eta oso interesgarria iruditzen zait. Garantzitsua da besteekin konpartitzeke eta bakoitzaren lana egiteko espazioa edukitzea.

## Partiduak Zubipen

ZUBIPEN gaur hasiko dira futbol partiduak jokatzen, uholdeen ondorioz urtariletitik zelaia itxita egon baita. Gaur emakumezkoen taldeak jokatuko du *Amaikak bat* taldearen kontra 18:30etan, eta bihar gorengoa Berioren aurka 16:30etan. Horiez gain, beste 4 partidu ere jokatuko dira Zubipen. □

## Ari, Kuraia, Ojos de Brujo eta Fermin Muguruza & Kontrabanda gaur

KONTZERTUAK dira gaur ere Sagastialden, Sagarrondotik festan. Ari, Kuraia, Ojos de Brujo eta Kontrabanda taldeek joko dute, 22:00etatik aurrera. 3.000 sarrera salgai egongo dira takilan. □

## Bertso bazkaria Elur Txorin

ELUR Txori elkartean bertso bazkaria dago gaur, Lujanbio, Mendiune eta Irazurekin. □

## Saskibaloi klaseak bihar

HERNANIKO saskibaloi taldeak klaseak antolatzen ditu 4-5-6 mailatako eta 1-2 DBHko gasteiztat. Bihera dira 09:30etatik 11:00etara. Jokatzen ikasi nahi duenarentzat irekiak dira klaseak eta debalde. Bestalde saskibaloi taldeak gaur du partidua Atletikoren kontra, Donostian, 10:00etan. □

## Boleibola kiroldegian

MUTILEN lehen taldeak igoera faseko partidua du gaur kiroldegian, 17:30etan, Bereziren kontra. □

## Errugbia Aieten

HERNANIK Riojaren kontra jokatuko du gaur Aieten, 17:00etan. Ligako azken aurreko partidua da. □

## Xakea Aristizabalaren

HERNANI Ak igoera faseko lehen partidua du gaur Elgoibarren kontra, Aristizabal kalean, 16:00etan. Hernani Bk jeitsiera fasekoa du, Arrasateren kontra. □

**CANAL+**  
**DIGITAL +**


**Telemar**  
ANTENAK  
TB PARABOLIKOEN ANTENEN INSTALAKUNTZA  
BANAKAKOAK ETA KOLEKTIBOAK  
TELEDISTRIBUZIOA  
TELEFONIA MUGIKORRA  
KONTSERBAZIO ETA MANTENIMENTUA

Elkano 13 / Tel.: 943 55 33 99 - Faxa: 943 33 00 60 - [Itxastele@terra.es](mailto:Itxastele@terra.es)  
HERNANI

**telyco denda**

**Telefonica**

**Arrandegia**  
Mari Fe



ORDUTEGIA  
Goizean: 8:00-14:00  
Arratsaldean: 16:30-20:00

Nagusia 36 - 943 550 489  
HERNANI

**TOLARE**  
SAGARDOTEGIA

**eizmendi**



**Maixa Eizmendi**

Osiñaga Auzoa - Tel. 943 556 405 - Móvil: 616 450 380 - HERNANI


Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarte. Errredakzioa: argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak: J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre, N. Legarreta eta A. Zerain. Egoitza: Larramendi 11. ☎: 943-330899. Faxa: 943-336306. Ezposta: [kronika@topagunea.com](mailto:kronika@topagunea.com). Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.

## Gotzaia Parrokietako kontseiluekin bilduko da gaur eta bisita pertsonalak ere hartuko ditu

■ Uriartek Ereñotzun emango du meza gaur, eta Kaskoan eta Floridan bihar.

JUAN Maria Uriarte Donostiarra Gotzaia Hernani gertutik ezagutzen ari da egun hauetan bisita Pastoralean eta gaur ere egun osoko agenda izango du, atzo bezalaxe. Goizeko 10:30etan bi parrokietako kontseiluekin bilduko da egoeraren berri jakin eta aurrera begira zer pauso eman aztertzeko. Egundikoa 12:30etan berriz, bisita pertsonalak hartuko ditu parrokiko bulegoan, Izpizua kalean. Arratsaldean, Uriarte Ereñotzun izango da. Lehen-dabizi parroki bilera egingo du eta 19:00etan meza emanago da San Antonio elizan.

Atzo goiz osoan Sandiusterriko erresidentzian izan zen Obispoa zuzendaritzarekin bildu eta gaixoak bisi-



Uriarte Gotzaia atzo Sandiusterriko egindako bisitan.

tatzen. Bertako kapilan meza ere eman zuen. Arratsaldean, Agustinatako obrak ikusi eta Inmaculada Ikastetxeari bisita egiteaz gain, parrokiko talde sekularrekin bildu zen.

Gotzaiaaren bisita Pastorala bihar bukatuko da, Juan Bautista eta San Jose Langilearen parrokietan meza emanda, 11:00etan Kaxkoan, eta 12:30etan Floridan. □

### KIROLA

FUTBOLA	Taldeak	N o n	N o i z
Goren.	Hernani Berio	Zubipe	B har16 30
Emakum.	Hernani Amakbat	Zubipe	Gaur10 30
Gaz. Eusk	Hernani Soitzg	Zubipe	Gaur16 30
Gazteak 1	Beasain Hernani	Beasain	Gaur16 00
Kad. O hor	Hernani Irapetamak	Zubipe	Gaur11 30
Kadeteak 1	Hernani U Ondaroma	Zubipe	B har11 45
Haur. O hor	Aretxabaleta Hernani	Aretxabaleta	Gaur11 00
Haur. 1	Hernani Urda	Zubipe	B har10 00

ERRUGBYA	Taldeak	N o n	N o i z
1 Autono	Hernani Bi ja	Aite	Gaur17 00
Jub. Euskal	Independiente Hernani	Santander	B har13 30
Kadeteak	US Dax-Hernani	Dax	Gaur17 00
Infan. G ipuz	Ordizia Hernani	Ordizia	B har10 00

WATERPOLOA	Taldeak	N o n	N o i z
Eusk M util.	Hernani M aristas	Kio Begia	Gaur13 00
Eusk Neska	Hernani Easo	Kio Begia	B har13 00

XAKEA	Taldeak	N o n	N o i z
G ipuzko a 1	Hernani Elgoibar	Hernani	Gaur16 00
G ipuzko a 2	Hernani Amasate S. Hernani		Gaur16 00

### ASTEBURUKO PARTIDUAK

FETO	Taldeak	N o n	N o i z
PELOTA	Eremontea - Galantako Jaialdia	N o n	N o i z
1) M atx IV-A ipurua II/Zalkain-Gaztelu	Galantea	Gaur16 00	
2) A luna Hizaso /B itor-B errezarria A zum endi	Galantea	Gaur17 00	
3) Sarasua A ipurua /A giresambe-J. Etxebenia	Galantea	Gaur18 00	
4) Ibanen-B adib la/Juaristi O lizar	Galantea	Gaur19 00	
UDABERRI Txapelketa			
Kadeteak	F. Gorostiza-A negi/A naizasuna	Kio Begia	Gaur16 00
Jubenilak	Erdizib-Zunturia/A bñiam endi	Kio Begia	Gaur16 00
Jubenilak	Ezeiza-Urkia/M undano	Kio Begia	Gaur16 00
G ipuzkoako Txapelketa			
T rinkete, kad	F. Gorostiza/A pezbetaea	Gaska	B har11 00
T rinkete, jub	G aizabal	Gaska	B har11 00
T rinkete, Jub	G onbotegia A ipurua	Gaska	B har11 00
BOLEIBOLA			
1 A uto. m ut	Hernani Berri	Kio Begia	Gaur17 30
1 A uto. N es	Hernani T onelavega	Kio Begia	B har11 00
Infanti. G ip	Esko lapib-Langile	Tobsa	Gaur11 00


### Ur jolasak bihar

BIHAR, igandea, ur ludoteka izango da kirodegiko igerileku-an, haurrentzat goizeko 10:30etik 12:30etara. □

### Bandaren kontzertua

KARNABALETAKO piñata kontzertua dago bihar, igandea, egundikoa 13:00etan, Udaletxeko arkupeetan. Hamalau obra joko ditu Bandak, Manuel Sagarna zuzendari dela. □

ZERBITZUAK	
TELEFONOAK	FARMAZIAK
Taxiak: 943 550093	► Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
Udalzaingoa: 943 333288	► Gauez: Arzallus Andoain. Plazaola 17, pol 25 ☎ 943 591514
DYA: 943 464622	
Autobusak: 943 556662	
Amulatorioa: 943 006666	
Jokalari anonimoak: 943 331103	



## Euskarazko film laburren zirkuitua

Martxoaren 3an, Hernanin

Lekua: Biteri Kultur Etxea

Ordua: 19:30

Sarrera: Dohainik

kimuak

2004

Euskara  
Elkarrein  
film laburren  
zirkuitua

Antolatzaleak:

**dobe**  
EUSKARA ELKARTEA

Babeslea:  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBERNIO VASCO  
KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

**BASURDEA (14 min.)**  
Ane Muñoz Mitxelena

**TERMINAL (12 min.)**  
Aitzol Aramaio

**DORTOKAREN UHARTEA (15 min.)**  
Maru Solores

**BELARRA (10 min.)**  
Koldo Almadoz

**TOPEKA (3 min. 30 seg.)**  
Asier Altuna



### I URTEURRENA

Carmen Diez Villarejo

2003ko otsailaren 20an hil zen

Carmen hil zela urtea bete den honetan, bere senitar-tekoek urturenreko meza eskaini nahi diogu, eta bertara gonbidatu nahi zaituztegu hora ezagutzen zenuten guztia.

Urtebetetze meza, **bihar, igandea, otsailak 29**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Juan Bataiatzailearen parrokan.

Hernanin, 2004ko otsailaren 28an.



### I URTEURRENA

Mari Carmen Otegi Iturralde

2003ko otsailaren 10ean hil zen

Mari Carmen hil zela urtea bete den honetan, bere senitar-tekoek urturenreko meza eskaini nahi diogu, eta bertara gonbidatu nahi zaituztegu hora ezagutzen zenuten guztia.

Urtebetetze meza, **bihar, igandea, otsailak 29**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Juan Bataiatzailearen parrokan.

Hernanin, 2004ko otsailaren 28an.



### I URTEURRENA


Manuel Gorostegi San Sebastian

2003ko otsailaren 18an hil zen

Manuel hil zela urtea bete den honetan, bere senitar-tekoek urturenreko meza eskaini nahi diogu, eta bertara gonbidatu nahi zaituztegu hora ezagutzen zenuten guztia.

Urtebetetze meza, **bihar, igandea, otsailak 29**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Juan Bataiatzailearen parrokan.

Hernanin, 2004ko otsailaren 28an.



### I URTEURRENA

Pablo Erize Arrizabalaga

2003ko otsailaren 13an hil zen

Pablo hil zela urtea bete den honetan, bere senitar-tekoek urturenreko meza eskaini nahi diogu, eta bertara gonbidatu nahi zaituztegu hora ezagutzen zenuten guztia.

Urtebetetze meza, **bihar, igandea, otsailak 29**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Juan Bataiatzailearen parrokan.

Hernanin, 2004ko otsailaren 28an.



### I URTEURRENA


Antonio Ormazabal Salaberria

2003ko otsailaren 25ean hil zen, 74 urte zituela

Artzai onak bere ardiak bezala, denak inguru-ruan, izan dituzu. Ziur egon senideak aurrera ere horrelaxe, izango gaituzu.

Urtebetetze meza, **bihar, igandea, otsailak 29**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Juan Bataiatzailearen parrokan.

Hernanin, 2004ko otsailaren 28an.



### IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berte-brala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Pisua salgai Elkano kalean. 3 logela, sukaldea eta komuna. Kanpoaldera eta igogailua du. Konpontzeko. 180.303 euro (30.000.000 pta). Ez deitu agentziek. 943 27743

Kotxea salgai. R-19. Prezioa: 600 euro (100.000 pta). Deitu: 943 49 22 82

Etxean matematika lanak egiten laguntzeko pertsona bat behar da. (Institutuko bigarren maila). Deitu: 943 55 19 56

Emakume arduratsua behar dut 2 ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 07:30etatik 15:00et